

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

“Manzanosko hondakin urak bateratzeko kolektorea eraikitze proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideen zabaltzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, balio justua ezartzeko aktak egiteko

Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatuak, 2026ko maiatzaren 29an, 197/2026 Foru Agindua onartu du. Hona hemen horren testua:

“Manzanosko hondakin urak bateratzeko kolektorearen eraikuntza proiektuak” erasandako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda aldatzea. Okupatzeko beharra adieraztea. Presako prozedura. Kreditu atxikipena.

Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 8ko 570/2024 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen “Manzanosko hondakin urak bateratzeko kolektorearen eraikuntza proiektua”, proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubideen hasierako zerrendari, eta zerrenda hori nahitaezko jendaurrean jartzeko izapidetza.

Ondoren, Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 25eko 377/2025 Erabakiaren bidez, erantzun egin zitzaizkien proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubideen hasierako zerrenda jendaurrean jartzeko izapide bitartean aurkeztutako alegazioei, eta onespena eman zitzaion haren eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari; gainera, haiek okupatu eta eskuratu beharra zegoela adierazi zen, eta izapide hori premiazkoa zela adierazi zen, eta Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatuari ahalmena eman zitzaion proiektua egikaritzeko behar ziren azalerak handitu eta/edo aldatzeko.

2026ko apirilaren 13an, Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko Obra Hidraulikoen Atalak jakinarazi zuen “Manzanosko hondakin urak bateratzeko kolektorearen eraikuntza proiektuaren” obretarako desjabetze espedienteari dagokionez, proiektuak saneamendu kolektore bat barne hartzen zuela, Manzanosko saihezbidea egiteko obrek baldintzatzen zutena. Hori dela eta, kontuan hartuta proiektua idazteko unean ez zekitela obra horiekin koordinatzeko aukerarik zegoenik, egungo errepidea bi aldiz gurutzatzen zuen trazadura bat planteatzen zen. Jendaurrean jartze epean, Jose Antonio Fernández de Olano Ortiz de Urbinak aurkeztutako alegazioa jaso zen. Alegazio horren arabera, “trazadurak errepidearen azpitik zeharkatzen du 2/000 lurzatitik 3/000 lurzatira, eta 4/000 lurzattia zeharkatu ostean, errepidea berriro gurutzatzen du 5/000 lurzatiraino.” Alegazio egilearen ustez, ez da oso logikoa trazadura bere finkatik eramatea, eta, horretarako, errepidea bi aldiz zeharkatu behar izatea, zeren eta behin bakarrik zeharkatuz gero, erantsitako planoan adierazten den bezala, proposamenean jarri beharreko kutxatilen kopurua murrizten baita; ondorioz, trazadura aldatzeko eskatzen du.

Geroago, 2025eko abuztuaren 19ko sarrera erregistroko eskaera jaso zen, Jesús Antonio Fernández de Olano Ortiz de Urbinak bidalia, “Manzanosko hondakin urak bateratzeko kolektorearen eraikuntza proiektuaren” obrei buruzkoa. Bertan, partikularrak eskatzen zuen bere proposamena baloratzeko, kolektorearen trazadura aldatzeko haren eta A-4342 errepidearen arteko bidegurutzean, Erriberabeitiko 1. poligonoko 1173 lursailetik igarotzean (4/000 finka, eraikuntza proiektuaren arabera). Idazkian azalduenez, proiektatutako trazatuak bi errepide gurutzaketa egitea aurreikusten du eta lau kutxatila. Horri buruz, partikularrak jatorrizko planoaren gainean marraztutako trazadura alternatibo bat proposatzen du, non errepide gurutzaketa bakarra eta bi kutxatila baino ez liratekeen egongo.

Idazki horri erantzun zitzaion jabearen proposamena obrak hasi ondoren aztertuko zela, bideragarritasuna berretsiz gero, proiektatutako trazadura aldatzeko.

Txostenak gaineratu duenez, obrak hasi ondoren, eta errepidearen saihebidetza egiteko obrekin koordinatuta, egiaztatu zen kolektorearen trazadura optimiza zitekeela alegazioetan eskatzen zen moduan. Optimizazioarekin errepidea behin bakarrik gurutzatu behar da, eta errepidearen plataforma oraindik gauzatu gabe zegoen puntu batean egin daiteke; beraz, bi obren arteko koordinazioa hobetzen zen eta eraginak nabarmen murrizten ziren.

Aldaketa horren jatorria, beraz, 4/000 finkaren titularraren desfektzio eskaera eta trazaduraren optimizazioa dira.

Horrela, desjabetze espedienteko 2/000 eta 5/000 finketako okupazioak erantsi behar izan dira, eta 3/000 eta 4/000 finketako okupazioak ezabatu.

2/000 finkaren kasuan, proiektuaren 9. putzuaren posizioa aldatu da, eta 8' izena hartu du; beraz, aldi baterako okupazioak eta zortasunak handitu egin dira.

5/000 finkaren kasuan, proiektuaren 6. putzua lurzatiaren mugaraino atzeratu da, afektzioa minimizatzen, eta 6' izena hartu du. Horrez gain, 7' izeneko beste putzu bat jarri behar izan da errepidea gurutzatu aurretik, eta, beraz, aldi baterako eta behin betiko okupazioak handitu dira, baita zortasunak ere.

Bestalde, 1/000 lursailean, intxaurren bat moztu behar izan da, eta 9/000 lursailean, erkametz bat; izan ere, ezin izan dira salbatu, eroanbidearen trazaduran egoteagatik eta ezin izan direlako beste alde batera mugitu dauden eragozpen fisikoengatik. Bi zuhaitzak tamaina handikoak eta osasun egoera onekoak ziren.

Txostenak ondorioztatzen du, arrazoi horiengatik honela aldatzen dela eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrenda:

– 2/100 finkan (2857 lurzattia, 1 poligonoa), aldi baterako okupazioa 1.099 m²-koa izatetik 1.476 m²-koa izatera pasatuko da.

– 2/100 finkan (2857 lurzattia, 1 poligonoa), akueduktu zortasuna 208 m²-koa izatetik 276 m²-koa izatera pasatuko da.

– 5/100 finkan (1160 lurzattia, 1 poligonoa), aldi baterako okupazioa 253 m²-koa izatetik 973 m²-koa izatera pasatuko da.

– 5/100 (1160 lurzattia, 1 poligonoa), akueduktu zortasuna 48 m²-koa izatetik 209 m²-koa izatera pasatuko da.

– /100 finkan (1160 lurzattia, 1 poligonoa), behin betiko desjabetzea 4 m²-koa izatetik 8 m²-koa izatera pasatuko da.

– Eraginpeko ondasuna: 1/100 finka (858 lurzattia, 1. poligonoa), intxaurren.

– Eraginpeko ondasuna 9/100 finkan (2674 lurzattia, 1. poligonoa), erkametz.

3/000 eta 4/000 lurzatiak desfektatuta daude.

Beraz, Obra Hidraulikoen Atalaren 2026ko apirilaren 13ko txostenean azaldutakoaren arabera, azaldutako trazadura aldaketa dela eta, desjabetzea 2/100 eta 5/100 finketara handitzen da. Finka horiek foru agindu honen eranskinean zehazten dira, eta desjabetze espedienteko 3/000 eta 4/000 finkak desfektatzen dira.

Bestalde, 1/100 eta 9/100 finketan eraginpeko landareria elementuei dagokienez, Desjabetzeen Atalak 2026ko apirilaren 23an jakinarazi du txostenean sartutako landare elementuei dagokienez honako hau zehaztu behar dela:

– F 1/100 finkaren eraginari dagokionez, txostenean jakinarazten da tamaina handiko intxaurren bati eragin zaiola. Zuhaitz hori dagoeneko sartu zen 2024ko urriaren 16an sinatutako balio justuaren aktan, "A-4342 errepidean Manzanosko saihebidetza eraikitzen proiektua,

Erriberabeitiko udalerrian (Araba), hain zuzen, Manzanosen, Madril-Hendaia lineako trenbide pasagunea (468/571 p.k.) kentzeko” izeneko proiektuaren F 21/000ri zegokiona (2023 - 50 – 0007 espedientea). Erriberagoitiko 1. poligonoko 858 katastro lurzatiari ere eragiten dio, eta obrak egiten ari dira, baina oraindik ez dira eremu horretara iritsi. Beraz, aipatutako intxaurreondoari dagokion 330,25 euroko kalte ordaina jada ordaindu zen, eta ez da bidezkoa beste kalte ordain bat ematea, errepidearen proiektua gauzatu aurretik kendu bada ere.

– F 9/100 eraginari dagokionez, B larre erabilerako lurzatiari dagoen erkametz bati zehazki eragiten zaiola zehazten da, eta 2025eko urriaren 20ko balio justuaren aktan jasota dago jada “zuhaiztiari eragiteagatik” dagokion kalte ordaina, 181,95 eurokoa, hain zuzen ere. Zuhaitz hori aldi baterako okupazio eremuaren barruan zegoen, eta kalte ordainean sartuta zegoen. Beraz, ez da bidezkoa beste kalte ordain bat ematea, dagoeneko sartuta baitzegoen.

Desjabetzeen Atalaren txostenak ondorioztatzen duenez, aurrekoa ikusita, txostenean zehaztutako F 1/100 eta F 9/100 finkek handitzean ez sartzea proposatzen da, ez baita bidezkoa jada ordaindu diren afekzioengatik beste kalte ordain bat ematea.

Nahitaezko Desjabetzearen Legearen eta hura garatzen duen Erregelamenduaren 15. artikulua okupazioa handitzea eta zabaltzea aurreikusten du, eta okupatu beharreko ondasunen artean sartu daitezke aurreikus daitezkeen kasuan kasuko obra handitzeetarako edo helburuetarako ezinbestekoak direnak, desjabetzea dakarren helburu, obra edo zerbitzuari loturik geratzen direla iritiz. Era berean, esan behar da presaz okupatu beharrekotzat adierazteak egikaritu beharreko proiektuen handitzeak ere hartzen dituela, eta, beraz, presako prozeduraren eraginpean dauden ondasun eta eskubideen desjabetzea handitzeko izapideak egin behar dira.

Handitze honen eraginpeko ondasun eta eskubideen desjabetzearen aurrekontua 985,43 euroan balioetsi du Desjabetze Atalak.

Ikusi dira Desjabetze Atalak eta Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak aurrekontu kreditua dagoela adierazteko idatzitako txostenak, eta Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatu eta Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko foru diputatu garen aldetik dagozkigun ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATU DUGU

Lehenengoa. Handitzea “Manzanosko hondakin urak bateratzeko kolektorearen eraikuntza proiektua” gauzatzeko behar den desjabetzea, eranskinean zehazten den bezala.

Bigarrena. Adieraztea handitze horren eraginpeko ondasunak okupatu eta eskuratu beharra dagoela, desjabetzeko, aldi baterako okupatzeko eta saneamendu akueduktu zortasuna ezartzeko.

Hirugarrena. Presazko prozeduraz izapidetzea eranskinean zerrendatutako 2/100 eta 5/100 finken desjabetzea.

Laugarrena. 985,43 euroko kreditu atxikipena egitea, Arabako Foru Aldundiaren 2026ko ekitaldirako onetsitako aurrekontuko 15302. G/452150/62190150 “Azpiegitura hidraulikoetarako lurak erostea” partidaren kontura, eraginpeko ondasun eta eskubideen balio justua ordaintzetik eratorritako zenbatekoak ordaintzeari aurre egiteko.

Bosgarrena. “Manzanosko hondakin urak bateratzeko kolektorearen eraikuntza proiektua” gauzatzeko afektatutako 3/000 eta 4/000 finken azalera desafektatzea.

Administrazio bidea amaitzen duen foru agindu honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, jakinarazi ondorengo egunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, lehenago, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi ondorengo egunetik aurrera.”

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Erriberabeitiako Udaltzeko lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatiko kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskainiz.


Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 15a

Bide Azpiegituren zuzendaria

MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA



Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpigituren Saila
 Departamento de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias

PROIEKTUA / PROYECTO
Manzanosko hondakin urak bateratzeko kolektorea eraikitzeko proiektua
Proyecto constructivo de colector para unificación de las aguas residuales de Manzanos

ERANSKINA / ANEXO
 Udal Mugartea / Término Municipal: Ribera Baja / Erriberabeitia

FINKA ZK.	TITULARRA	KATASTROKO DATUAK		ERAGINDAKO AZALERA m ²				Esp./Expte. 2024/4-A	
		POLIGONOA	LURSAILA	BEHIN-BETIKOA	ALDI BATERAKOA	ZORTASUNA Saneamendu akueduktua (3 m)	EGUNA		ORDUA
Nº FINCA	TITULAR	DATOS CATASTRALES		SUPERFICIE AFECTADA m ²		SERVIDUMBRE Acueducto de saneamiento (3 m)		DÍA	HORA
		POLIGONO	PARCELA	DEFINITIVA	TEMPORAL				
2/100	RODRIGO SALAZAR, VICENTE	1	2857		377	68		14/07/2026	10:00
5/100	RODRIGO SALAZAR, VICENTE	1	1160	4	720	161		14/07/2026	10:00
				APROBETXAMENDUA		APROVECHAMIENTO			
				Labore ureztatua / Tierra de labor regadio		Labore ureztatua / Tierra de labor regadio			